

IRABAZLEAREN IRITZIA KANPAINARI BURUZ

- **Lehenengo eta behin, zorionak!**

Eskerrak zuei.

- **Etxean zein hizkuntza erabiltzen duzue?**

Normalean erderaz erabiltzen dugu, baina alabarekin euskeraz.

Nola izan zenuen eman giltza egitasmoaren berri eta zergatik erabaki zenuen inkesta betetzea?

Uste dut Balmasedako Udalak “Eman Gilza” egitasmoari buruzko bidalitako dokumentazioari esker ezagutu genuela. Hori dela eta, web orrialdean sartu ginen eta galderak bete genituen

- **Lagungarriak izan zaizkizu emangiltza.com webgunean aurkitu dituzuen baliabideak?**

Suposatzen dugu gero eta gehiago lagungarriak izatea. Oraingoz, gure alabak bi urte ditu. Beraz, ikusiko dugu zer gertatuko den etorkizunean...

- **Eta etxean jaso dituzun euskarriak (Ku-Ku liburuxka esaterako)**

Ku-Ku liburua oso erabilgarria iruditzen zait. Liburuxka honen bidez, gurasook uler gaitezke haurreskolan erabiltzen dituzten onomatopeiak eta, haiei esker, komunikazio-maila oinarrizkoa mantentzea.

- **Zergatik uste duzu emangiltza webgunean euskararen transmisioa sustatzeko eskaintzen diren baliabideak garrantzitsuak izan daitezkeela?**

Eguneroko egoerak planteatzen dituelako EmanGiltzak. Hau da, laguntza eskaintzen digu gure seme-alaben hezkuntza errazteko eta gure arteko euskararen harremana bultzatzeko.

- **Bertan jasotako informazioari esker zuon ohiturak aldatu dituzue?**

Agian, bai... baina ez dakit hainbesterako izan den ala ez. Dena den, uste dut ohitura batzuk aldatu ditugula hitz egitekoan.

- **Uste duzu garrantzitsua dela horrelako egitasmoak sustatzea Udaletik?**

Bai, ados nago ekimena honekin. Zentzu horretan, gustatuko litzaidake informazio gehiago jasotzea eta erakunde publikoek egitasmo horrekin jarraitzea.